



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 1a

46. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua aldatzen duena. M.<sup>a</sup> Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztu du (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, “Equilicua” programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, oinarrizko osasun-laguntzan gaixoentzako zaintza-eskaintzak duen jarraitutasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Osasunbideko plantillak azken lau urteetan izan duen bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzutik 2012an eta 2013an sustaturiko prestakuntza-ikastaroei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena betetzeari begira aurreikusten dituen jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duena.**

*EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.1. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2013ko abuztuaren 8ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**IRIZPENA**

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2014ko martxoaren 20an eta 25ean egin-dako bileretan onetsia.

**Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena**

**ZIOEN AZALPENA**

Ukaezina da gobernuz kanpoko erakundeek garrantzi handia dutela krisi testuinguru honetan. Nafarroako errealitate sozialari buruz duten ezagutzatik abiatuta, lan paregabea egiten dute, ez soilik solidaritate-baloreen prestakuntzari dagokionez, ezpada zailtasunak dituzten pertsonen lagun egiteari dagokionez ere.

GKE-en lan-esparrua oso zabala eta anitza da, garapenerako lankidetzaren arloko lanetik hasi eta ezgaitasun motaren bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen saiatzen diren erakundeetaraino, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen lan egiten duten gizarte-entitateetatik pasatuta.

Hortaz, erkidego honetan eta une honetan, gizarte-entitateen sektorea esparru estrategiko bat

da, gizarte-, giza eta ekonomia-garrantzi handia duenez babestu eta sendotu beharra dagoena.

Edozein estamenturentzat laguntza publikoak, haien kantitateak, egonkortasuna eta iraunkortasuna garrantzitsuak baldin badira, gisa honetako gizarte-entitateentzat hil ala bizikoak dira, garatutako elkartasun-lana eraginkorra izanen bada.

Hortaz, diru-laguntzen eta laguntza publikoen deialdian egonkortasuna egon beharko litzateke urtez urte laguntza horiek emateko datari dagokionez, entitate horiek egiten duten lanarekin eta ematen dituzten zerbitzuekin bat etor dadin haien plangintza. Ezin da egon orain gertatzen den bezain desfase handia, ezin da gertatu martxoan oraindik egin gabe egotea zenbait diru-laguntzaren deialdiak eta beste zenbait ebatzi gabe egotea, zeren egoera horrek ezegonkortasun eta ziurgabetasun ekonomikoa sortzen baititu, eta ezin dugu ahantzi ziurgabetasun horrek eragina daukala entitate horiek ematen dituzten prestazioen eta martxan jartzen dituzten neurrien kalitatean. Sektore honek Nafarroan duen garrantziari buruzko oinarrizko adostasun bat baldin badago, garrantzi horren arabera finantzaketa-sistema bat eduki behar dugu.

Azterketa eta analisi ugari bat etorririk adierazten dute Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko (GEHS) entitateak diruz laguntzeko Administrazio Publikoak baliatzen duen sistema desegokia eta eskasa dela, eta ez dela egokitzen errealitate-ra eta sektore horrek azken hamarkadetan izandako bilakaerara, eta hori oztopo oso garrantzitsua da sektorearen garapenerako. Finantzaketa desegoki hori erakundeek gure gizarteko pertsona ahulenei ematen dizkieten zerbitzuen kalterako da, eta horrek konparaziozko bidegabekeria bat dakar bestelako entitate batzuekin alderatuz gero. Egungo krisi egoeran, finantzaketa arazo egiturazkoak larritu eta are gehiago geratu dira agerian, ahal bada; izan ere, zerbitzuak eta programak gai-

nezka egiten ari dira, halako moduz non gizarte entitateek ematen duten arreta zabaldu eta areagotu behar baitute, bere finantzaketa bideak murriztu eta prekarizatzen diren bitartean.

GEHSko entitateek era jarraituan egiten dituzten jardueretatik asko, interes publikokoak izateaz gain, behar-beharrezkoak dira gizartean; izan ere, pertsona ahulenen sustapenera bideratuta daude, oinarrizko beharizanean erantzuten diete, eta gizarte zerbitzuekiko eta bestelako zerbitzu publikoekiko lankidetzak estuan gauzatzen dira. Hala ere, denboran zehar sendotu eta eraginkortasuna erakutsi arren, eta Administrazioak berak eta gizarteak premia bizikotzat hartu arren, praktikan baldintza prekarioetan jardun behar izaten dute, batzuetan etenak eginez, deialdien atzerapena dela-eta, denbora aldetiko zalantzenatik eta kudeaketa-baldintza eta administrazio-kontrol desegokiagatik.

GEHS hazkunde garrantzitsua izan du azken urteotan, bere jardueren kalitatea hobetu egin da, administrazioekiko lankidetzak gero eta estuagoa da, eta bere eginkizun soziala ezinbestekoa da. Hala ere, garatzen dituen jarduerak finantzatzeko formula egokirik ez aurkitzeaz gain, egun dauden konplexuago egin dira, eta, ondorioz, gero eta zailagoa da proiektuen bideragarritasuna.

GEHSari eta horrek gauzatzen duen jarduerari egokitutako legedirik edota indarrean dagoen foru legeari egokitutako arau-garapenik ez izatearen ondorioz, Administrazioaren eta gizarte entitateen arteko harremana, askotan, baldintzatuta egoteaz gain, diru-laguntzak eskuratzeko eta justifikatzeko administrazio-prozeduren kontrolera murriztuta geratzen da. Elkarlanak, helburu komunak lortzeko lankidetzak, non bi aldeek elkarrekin jarduten duten eta ahalegina egiten duten, ez du lehentasunik, ezta azken onuradun izanen diren pertsonen ikuspegiak eta haien beharizanak asebetetzeak ere; aldez, gastuaren kontrola da dena baldintzatzen duena, eta administrazio-konplexutasuna eta burokratizazioa gero eta handiagoak dira, eta hori oztopo bihurtzen da entitate txikiek diru-laguntzak eskuratu ahal izateko, eta, horretaz gain, gastuak areagotzen ditu, efizientzia murrizten du eta azken helburua bistatik galtzea eragiten du.

Zorpetze-ratioa oso txikia bada ere, hamar entitatetik seik onartzen dute likidezia arazoak dituztela. Datu horrek adierazten du entitateek egoera ekonomiko saneatua dutela, baina kezkatzekoa da, kontuan hartzen badugu likidezia arazoak dituzten entitate askok beren burua behartuta ikusten dutela hornitzaileei eta langileei egin beharreko ordainketak atzeratzera, edota beren jarduerak atzeratzera. Horrekin lotuta, egiaztatuta da horie-

tatik ehuneko 40 baino gehiagok mailegu edo kreditu pertsonalak eskuratzen dituztela.

Likidezia arazoaren ondorioz, entitateek bi zailtasun mota izaten dituzte: alde batetik, kredituak eskuratzeko, batzuetan entitatearen sustatzaileen ondasunen abalarekin –Administrazioak ez ditu bere gain hartzen kreditu horien kostu finantzarioak, eta, hala, gehiegizko arriskuak, beharrezkoak ez direnak, areagotu egiten dira–, eta, bestetik, kredituak eskuratzeko zailtasunak, finantza-entitateek aplikatzen dituzten arriskubalorazioko sistemak ez daudelako sektorearen errealitatera egokituta. Eta horixe bera gertatzen da abalaz izatea beharrezkoa denean. Ez da lanik egin Administrazioaren eta finantza-entitateen artean akordioak lortzeko, gizarte-entitateei likidezia errazte aldera, horrela entitate horiek ordainketak egitean duten atzerapena zuzen dezaten. Horretaz gain, sektorearen beharizanetara eta errealitatera egokitutako tresna finantzarioak falta dira.

Hori dela eta, foru lege honen xedea da, edozein entitatek, oro har, duen kontuak emateko betebeharra bazter utzi gabe, arintzea eta erraztea Foru Komunitateko Administrazioak gizarte-entitatei ematen dizkien diru-laguntzen izapidetzea, epeak eta ordainketa.

**Artikulu berria.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari 5. bis artikulu berri bat gehitzen zaio:

“5. bis artikulua. Plangintza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak diru-laguntzen plan estrategiko orokor bat ezarriko du, hiru urtetik behin, departamentuen eta jarduketara lerroen arabera xehakaturik. Plan horrek, onetsia izan aurretik, arlo ekonomikoan eskumena duen departamentuaren baimena lortu beharko du.

Diru-laguntzen plan estrategiko hori urtero berrikusiko da, eta bertan gehituko dira beharrezkotzat jotzen diren aldaketak edo doikuntzak.

Diru-laguntzen plan estrategikoa Nafarroako Parlamentuko ekonomiaren arloko batzorde eskudunari aurkeztu beharko zaio urtero, apirilaren 30a baino lehen.

2. Urte bakoitzeko lehen lauhilabetekoan, departamentu eta erakunde autonomo bakoitzak aurreko ekitaldiko deialdien ebaluazio-txostenak prestatuko dituzte. Txosten horietan aztertuko dira deialdi bakoitzean banaka planteatutako helburuen betetzea eta diru-laguntza emateko prozedu-

ran ezarritako epeen betetze-maila, bai eta deialdiei lotutako gai garrantzitsuak ere.

3. Aurreko idatz-zatian aipatzen diren txostenak Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzaren dokumentu gisa igorriko zaizkio, onetsi ondoren eta ezarritako epearen barruan, Nafarroako Parlamentuan ekonomiaren arloko eskumena duen batzordeari:

**1. artikulua.** Aldatu egiten da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 14. artikulua, eta 4. idatz-zati berri bat gehitzen zaio:

“4. Oinarri arautzaileetan ezarritako ordainketa-epeak betetzen ez badira, onuradunek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eskatu ahalko diote diruaren legezko interesa ordaintzeko.

Halaber, ez-betetze horren ondorioz galerak edo ondorio ekonomiko negatiboak eragiten baldin badira finantzaturako proiektu, ekintza, jokaera edo egoerarako, onuradunek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eskatu ahalko diote kalte horiek ordaintzeko.

Onuradunek behar bezala frogatu beharko dituzte ez-betetzeak eragindako kalte ekonomikoak.”

**2. artikulua.** Aldatu egin da Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17. artikulua, eta 3. eta 4. idatz-zati berriak gehitu zaizkio:

“3. Diru-laguntzak emateko prozedurak, oro har, urte bakoitzeko urtarrilean zehar hasi beharko dira eta amaitu, berriz, gehienez ere hiru hilabete epean, diru-laguntza horiek emateari buruzko ebazpenekin, behar bezala egiaztatutako kasuetan izan ezik.

Salbuespen horiek Nafarroako Parlamentuko ekonomiaren arloko batzorde eskudunari frogatu beharko zaizkio urte bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen.

4. Gizarte ekintzako entitateentzako diru-laguntzen kasuan, horiek emateko prozedura urte bakoitzeko urtarrilean hasiko da, eta organo eskudunak diru-laguntza emateko ebazpena urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen burutu beharko da.”

**3. artikulua.** (KENDUTA)

**4. artikulua.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 33. artikulua aldatu egin da. Hona testu berria:

“33. artikulua. Diru-laguntzen aurrerapena.

1. Arau orokor modura, alde zuzenetik ordainduko dira irabazi asmorik gabeko entitateei edota horien federazio, konfederazio edo elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzak, gizarte ekintzako proiektu edo programak finantzatzera bideratuak, baldin eta diruz lagundutako jardueraren gauzatzeari aldi baterako finantzatzeko baliabide nahikorik ez badute eta inguruabar hori behar adina frogatzen badute.

Aurrerakinak modu honetan ordainduko dira:

a) Emandako diru-laguntza 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, ordainketa bakarrean ordainduko da, aurrerakin gisa, diru-laguntza emateko ebazpena ematearekin batera.

b) Emandako diru-laguntza 60.000 euro baino gehiagokoa bada, gutxienez bi zatitan ordainduko da: horietako lehena diru-laguntza ematea ebaztearekin batera, eta hurrengoa (edo hurrengoak) ebazpen horretan ezarritako epeetan edo terminoetan. Zati bakoitzeko ordainketa bakoitza ez da izanen, inolaz ere, 30.000 euro baino gutxiagokoa, azkenekoa izan ezik, diru-laguntza osatzera arteko zenbatekoa ez bada kopuru horretara iristen. Nolanahi ere, beharrezkoa izanen da exekuzioari buruzko agiri bidezko justifikazio ekonomikoa aurkeztea, aurretik ordaindutako zenbatekoari dagozkiona, diru-laguntzaren hurrengo ordainketa egiteko.

2. Gainerako onuradunentzat, emandako diru-laguntzaren ordainketak aurreratu ahal izanen dira diru-laguntzaren oinarri arautzaileetan hori berariaz aurreikusten denean soilik, oinarriok ezarritako muga, betekizun eta, hala egokituz gero, bermeekin, eta, betiere, diru-laguntzaren xedeak betetzeko funts-horniduraren beharra justifikatzen baldin bada.

3. Lehenengo idatz-zatian aurreikusten ez diren onuradunen kasuan, nahitaez ezarriko dira bermeak aurrerakinak 60.000 euro baino gehiagokoak direnean, kasuetan, hurrengo kasuetan salbu:

a) Onuraduna administrazio publiko bat edo sektore publikoko entitate bat denean.

b) Etengabeko prestakuntzako programetan kasuko eskubidea aitortua duten enplegu zentro berezietan defizita konpentsatzeko ordainak ematen zaizkienean.

4. Halaber, zilegi izanen da aurreko idatz-zatian aipatutako bermeak ez eskatzea “Nafarroako Lan Gatazkak Konpontzeko Epaimahaia” Fundazioari eta irabazi asmorik gabeko kultur entitateei, kasu bakoitzaren inguruabar bereziak

kontuan izanik ogasun arloko kontseilari eskudunak erabakitako kasu zehatzetan.

5. Diru-laguntzen aurrerakinak oinarri arautzaileetan ezartzen diren epeetan justifikatu behar dira, eta diru-laguntzen justifikazioari eta ordainketari buruz oro har adierazitako betekizun berberak bete behar dira, foru lege honen 32. artikuluko 3. idatz-zatian aipatutako txostena barne dela.”

**5. artikulua.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari 33. bis artikulua berri bat gehitzen zaio:

“33. bis artikulua. Exekuzioari buruzko epeak.

Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko epeak zenbatzerakoan, oro har, diru-laguntza ematen duen ebazpenaren data hartuko da hasierako datatzat. Ekintza horiek gauzatzeko epeak hasieran emandako denbora halako bira bitarte luzatzen ahalko dira, oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzetan.

Edonola ere, gizarte entitateak hala eskatzen badu, hasierako data, behin ebazpena jaso ondoren, diru-laguntza emateko ebazpena bera baino lehenagokoa izan daiteke, betiere deialdia egin den urte naturalaren barruan izanez gero.”

**6. artikulua.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari bi xedapen gehigarri berri gehitu zaizkio. Hona testu berria:

“Lehen xedapen gehigarria. Finantza entitateetarako hitzarmenak.

Nafarroako Gobernuak, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko entitateei likidezia izateko eta kredituak eskuratu ahal izateko erraztasunak emateko, lankidetzaren hitzarmenak sustatuko ditu Nafarroan jarduten duten finantza entitateekin.”

“Bigarren xedapen gehigarria. Gerakina.

Edozein arrazoi tarteko, esleitu gabeko gerakinik geldituko balitz Nafarroako aurrekontu orokorretan gizarte entitateetarako aurreikusitako diru-laguntzetarako kredituetan, premiazko deialdi bat onetsiko da aurrekontu-ekitaldi beraren barruan, foru lege honetan aurreikusitakoari jarraikiz.”

**7. artikulua.** Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeari xedapen gehigarri bakarra hirugarren xedapen gehigarria izatera igaro da.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa.**

### *EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.1. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak onetsitako irizpena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

#### **IRIZPENA**

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeak 2014ko martxoaren 20an eta 25ean egin dako bileretan onetsia.

### **Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamena**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Zenbait autonomia erkidegok kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zuzeneko zerga bat arautu dute azken urteotan. Zerga horren zergapeko egintza da kreditu-erakundeek hirugarrenen funtsak atzitzea, edozein izaera juridikoz, eta funtsak itzultzeko betebeharrarekin. Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko azaroaren 29ko 14/2001 Extremadurako Legea izan zen onetsitako lehena, eta aurkaratua izan zen Konstituzio Auzitegian, zeinak, azaroaren 14ko 210/2012 zenbakiko epaiaren bidez, ezetsi egin baitzuen konstituziokontraotasun-errekurtsua, esanez zerga horrek ez duela eragiten zerga-azarpen bikoitzik, ez jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez ere, ez diela eragiten kapitalen joan-etorri askeari edo kokatzeko askatasunari, eta ez duela hausten lurraldez kanpoko ondasunak edo egintzak ez kargatzeko debekua. Geroago, Andaluziak (abenduarren 3ko 11/2010 Legea), Asturiasek (abenduarren 28ko 3/2012 Legea), Kanariar Uharteek (ekainaren 25eko 4/2012 Legea) eta Kataluniak ere (abenduarren 18ko 5/2012 Lege-dekretua) ezarri zuten zerga.

Azkenik, “Finantza-sistemaren funtzionamenduan efizientzia handiagoa bermatzen duen tratamendu fiskal harmonizatu bat ziurtatzeko asmoz,” Finantza publikoak sendotzera eta jarduera ekonomikoa bultzatzera bideratutako tributu-neurriei buruzko abenduaren 27ko 16/2012 Legeko 19. artikulua kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga sortu zuen, 2013ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin, Espainiako lurralde osoan eska daitekeen zuzeneko zerga gisa, “Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan eta Nafarroako Foru Komunitatean hurrenez hurren foruetako zerga-araubide diren ekonomia-itunari eta ekonomia-hitzarmenari kalterik egin gabe.”

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztuari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 45. artikuluaekin bat, Nafarroako zerga eta finantza jarduera hitzarmen ekonomikoren tradiziozko sistemaren bidez arautzen da, eta Nafarroak bere zerga-araubideari eusteko eta hura ezarri eta arautzeko ahalmena du. Uztailaren 15eko 25/2003 Legearen bidez onetsitako Hitzarmen Ekonomiko indardunaren 2. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak ahalmena du hitzartutako ez bestelako zergak ezartzeko, baldin eta hitzarmenean jasotako harmonizazio irizpideak eta printzipioak errespetatzen badira; besteak beste, solidaritate printzipioa, benetako zerga-presio orokorra Espainiako gainekoan dagoenaren baliokidea izatea, pertsonen joan-etorri eta kokatzeko askatasuna eta Espainiako lurralde osoan ondasunek, kapitalek eta zerbitzuek libreaki zirkulatzea, ondorio diskriminatzailek eragin gabe.

Xedapen horiek direla-eta, bidezkoa da Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan sortzea eta arautzea bertako lurraldean jarduten diren kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga.

#### **1. artikulua.** Sorrera.

Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga sortu da, zeina foru lege honetan jasotako xedapenei jarraikiz arautiko baita.

#### **2. artikulua.** Zergaren izaera eta xedea.

Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga, izaera zuzeneko tributu bat da, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean jarduten diren kredi-

tu-erakundeetan jarritako gordailuak kargatzen dituen, foru lege honetan ezarritako moduan eta baldintzetan.

### 3. artikulua. Zergapeko egintza.

Zergapeko egintza da foru lege honetako 6. artikuluan adierazitako zergadunek hirugarrenen funtsak mantentzea, mantentze horren izaera juridikoa zein ere den, eta funtsak itzultzeko betebeharra baldin badakar.

### 4. artikulua. Salbuespenak.

Honakoak daude zerga honetatik salbuetsiak:

1. Espainiako Bankua eta diru-arauketako agintariak.

2. Europako Inbertsio Bankua.

3. Europako Banku Zentrala.

4. Kreditu Ofizialeko Institutua.

### 5. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

Zergaldia urte naturala izanen da.

Halere, jarduera hasten bada Foru Komunitatearen lurraldean urte naturala hasita dagoenean, zergaldia izanen da jarduera hasi den egunetik urte naturala bukatu bitartekoa.

Zergaldia betiere bukatuko da zergadunak Foru Komunitatean jarduteari uzten dionean.

Zerga sortuko da zergaldiaren azken egunean.

### 6. artikulua. Zergadunak.

1. Zergaren zergadunak izanen dira:

a) Kreditu Erakundeen alorreko indarreko Zuzenbidea Europako Erkidegoetakora egokitu beharri buruzko ekainaren 28ko 1298/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 1. artikuluan zehaztutako kreditu-erakundeak, Foru Komunitatearen lurraldean jarduten badute eta lurralde horretan hirugarrenen funtsak eskuratzen badituzte, bai bere egoitza nagusiaren bidez, bai lurralde horretako sukurtsal eta bulegoen bidez; betiere, itzultzeko betebeharrarekin.

b) Atzerriko kreditu-erakundeek Foru Komunitatearen lurraldean dituzten sukurtsalak, jarduketa horiek egiten dituztenak.

2. Aipatu erakundeek ezin diete hirugarrenei inolaz ere jasanarazi zerga honen kuota.

### 7. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria da zergaldiko hiru hileko natural bakoitzeko azken saldoaren batez besteko aritmetikoa egitetik heldu den zenbatekoa, kreditu-erakundeen balantzearen pasibo erreserbatuko 4.

kontusailari –"bezeroen gordailuak"; finantza-orri indibidualetan jasotakoak– dagokiona, Foru Komunitateko lurraldeko egoitza nagusiak edo sukurtsalek eskuratutako gordailuei dagokien zatian.

Horretarako, azken saldoa minoratuko da "Jaulkitako partaidetzak eta hipoteka-zedulak" izeneko 4.2.2.4. kontusailean jasotako zenbatekoetan, bai eta 4.1.5., 4.2.5., 4.3.2. eta 4.4.5. kontusailletako "balorazio doikuntzak" gisa jasotako zenbatekoetan.

2. Artikulu honetan aipatutako parametroak dagozkie finantza-informazio publiko eta erreserbatuko arauari eta finantza-egoera orrien ereduari buruz Espainiako Bankuak kreditu-erakundeei emandako abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularreko IV. eranskinean eta II. tituluari jasotakoari, edo horren ordezkotako arauari jasotakoari.

### 8. artikulua. Zerga-kuota.

1. Kuota osoa zerga oinarriari ehuneko 0,03ko karga-tasa aplikatuz kalkulatu da.

2. Kenkari orokorrak. Erregelamenduz ezarritakoaren arabera kalkulatu ateratzen den kuotatik ondoko zenbatekoak izanen dira kengarriak:

a) Kuota osoaren ehuneko 40, baldin eta kreditu-erakundearen egoitza soziala Nafarroan bada.

b) 8.000 euro, Nafarroako lurraldean kokatutako sukurtsal edo bulego bakoitzeko; kantitate hori 30.000 euroraino igoko da baldin eta erroldaren arabera 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokaturik badaude.

Letra berria) Aurrezki kutxen eta horien transformazioaren ondoriozko fundazioen gizarte-ekintzetara bideratuak, eta kreditu-kooperatiben hezkuntza- eta sustapen-funtsetara, betiere kasuan kasuko zergaldian Nafarroan benetan inbertituak izan direnean.

Aurrezki kutxek edo kreditu-kooperatibek kreditu-entitate batean partaidetza badute eta entitate horien bidez gauzatzen badute zeharka beren finantza-jarduera, edota kreditu-entitate horietan partaidetza badute aurrezki kutxen transformazioaren ondoriozko fundazioek edo kreditu-kooperatibek, aipatutako kreditu-entitate horrek, zergaren subjektu pasibo delarik, aplikatzen ahalko du kenkari hori.

Letra berria) Kuota osoaren ehuneko 25, baldin eta subjektu pasiboa kreditu-kooperatiba dela josten bada.

Letra berria) Europako Erkidegoko araudiko definizioaren arabera enpresa txiki eta ertainak

nahiz autonomoak direnei ekitaldi bakoitzean emaniko zenbateko guztien ehuneko 2.

Letra berria) Nafarroako Foru Komunitatearentzat onura publikokoak edo gizarte-intereseokoak diren proiektuetarako emaniko finantzaketa, edo lankidetzako publiko-pribatuko proiektuetarako emandakoa, proiektuok Nafarroako Gobernuak itunduak eta onetsiak baldin badira, edo, bestela, legez ezarritako proiektuetarako emandakoa.

3. Kuota likidoa izanen da tributu-kuotari artikululu honetako 2. idatz-zatian ezarritako kenkariak aplikatetik heldu dena. Kuota likidoak ez du inolaz ere izanen 0 euro baino gutxiagoko baliorik, eta ezin baldin bada inolako kenkaririk aplikatu, kuota likidoa kuota osoaren berdina izanen da.

4. Kuota diferentziala izanen da egindako konturako ordainketak kuota likidoari kentzetik heldu den emaitza, zeina konpentsatu egin ahalko baita, foru lege honetan ezarritako moduan, baldin eta likidaziotik ateratzen den tributu-kuota negatiboa bada, eta positiboa balitz, likidaziotik ateratzen den kuotaren zati osoa bada.

5. Autolikidaziotik ateratzen den tributu-kuota izanen da kuota diferentzialari indarreko ekitaldiko konturako ordainketak, itzulketarako eskubidea sortzen dutenak, gehitzetik ateratzen dena, baldin eta negatiboa bada, foru lege honetan ezarritako moduan.

**9. artikulua.** Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritza.

1. Zergaren kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritza Nafarroako Zerga Ogasunari dagozkio, eta hori ez da eragozpen izanen kontrolaren xede diren finantza-establezimenduen arabera sektorean eskudun diren ikuskaritza-organoekin lankidetzan aritzeko.

2. Zergadunek zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute zergaldiaren osteko urteko uztailean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarritako tokian eta moduan.

3. Autolikidazioarekin batera aurkeztuko dira erregelamendu bidez ezarritako zerrendak, informazioa jasoko dutenak Nafarroan kokatutako sukurtsal bakoitzaren edo/eta entitatearen egoitza zentralaren azken lau hiru hileko naturaletako

bakoitzaren azken saldoari buruz, modalitateen arabera bereizita, eta ezin izanen dute banku-sekretua baliatu informazio horretan datuak ezkutatzeko.

4. Nafarroan bulegoak dituen erakunde batek ez badu kasuko autolikidazioa epearen barruan aurkezten, Nafarroako Zerga Ogasuneko kudeaketa-organoek prozedura abiarazi ahal izanen dute, eskueran dituzten datuekin behin-behineko likidazioa egiteko. Modu horretan egindako likidazioaren betearazpena ezertan ere eragotzi gabe, Nafarroako Zerga Ogasuneko organo eskudunek egiaztapen eta ikerketa jarduketak abiarazi ahal izanen dituzte, egindako likidazioaren xede den aldiari buruz.

**10. artikulua.** Konturako ordainketa egin beharra.

Zergadunak behartuta daude konturako ordainketaren autolikidazio bat aurkeztera, kasuko zergaldiarena, ekitaldi bakoitzeko uztailean, aurreko zergalditik heldu den kuota likidoaren ehuneko 50ekoa.

**11. artikulua.** Arau-hausteak eta zehapenak.

Foru lege honetan eta foru legea garatzeko araudian xedatutakoa ez betetzetik heldu diren tributu arloko arau-hausteak Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

**Xedapen iragankorra.**

Foru lege honetan ezarritakoa garatzeko erregelamenduzko xedapenak onetsi arte, eta kobratzea errazte aldera, Nafarroan bulegoak irekita dituzten kreditu-erakundeak behartuta egonen dira zerga aplikatzen den lehen ekitaldiaren hurrengo urtarrilaren 30a baino lehen Nafarroako Zerga Ogasunari jakinaraztera balizko likidazioa egiteko beharrezkoak diren datuak.

**Azken xedapena.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra. Betiere, 2014ko urtarrilaren 1etik aitzina hasitako zergaldietako ondorioekin exijituko da zerga.



## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, M.<sup>a</sup> Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztu du Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapide-tu dadin eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea bukatzen dela 2014ko apirilaren 9ko 13:00etan.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENEA**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua arabera, ezin izanen zaie laguntza ekonomikorik eman, ez zuzenenean ezta zeharka ere, kasuan kasuko toki ogasunaren zergapeko partikular edo entitateei, baldin eta legean jaso gabeko zerga-salbuespenak egitea badakar horrek, edo toki ogasun horrekin eginiko zorren konpentsazio edo txikiagotze bat. Toki entitatearekiko zorrak direla-eta zor horiek premiamendu bidez kobratzeko prozedura irekita duten partikular edo entitateei ere ezin izanen zaie laguntza ekonomikorik eman.

Gaur egun, krisi ekonomikoa dela medio, familia ugari langabezira eraman ditu halabeharrak –epe luzeko langabezira, askotan–. Horrek areagotu egin du familia horien zaurgarritasuna, eta hori bereziki kezagarria da familietan adingabeak daudenean. Gauzak horrela, administrazio publikoek ziurtatu beharra daukate herritarrei ez zaizkiela beharrezkoak dituzten gizarte-prestazioak ukatuko zorrak dituztelako Administrazioarekin, denbora luzean egon izateagatik lanik gabe edo egoera zailan. Antzeko helburuarekin onetsi zuen Parla-mentuak 6/2013 Foru Legea, otsailaren 25ekoa, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezinak deklaratzeko dituen.

223. artikulua, bere horretan, udal laguntzarik gabe utz ditzake baliabide horien premia larrian dauden familiak.

**Artikulu bakarra.** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 223. artikulua aldatzen da; hain zuzen ere, paragrafo hau eransten zaio:

“Aurrekoa gorabehera, toki entitateak laguntza ekonomikoak ematen ahal dizkie berarekin dituzten zorrak direla-eta zor horiek premiamendu bidez kobratzeko prozedura irekita duten partikularrei, baldin eta hori espresuki jasotzen bada aipatu laguntzen gaineko arauetan, eta arau horretan adierazitako baldintza eta moduan”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, “Equilicua” programari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aitziber Sarasola Jaca andreak egindako galderaren erantzuna, “Equilicua” programari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-14/PES-00046), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa (LOE) onetsi eta gero, Lanbide Heziketako titulu guztietan zeharka ezarri zen “Enpresa eta ekintzailletza” izeneko modulua. Modulu hori, beraz, Lanbide Heziketa berrian agertu zen 2008-2009 ikasturteik aurrera. Behin modulu berri horren errodajea hasitakoan, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketako Zerbitzuak erabaki zuen modulu hori beti emanen zela heziketa zikloetako bigarren kurtsuan, bai erdi mailako zikloetan bai goi mailakoetan, iritzi ziolako kurtsu hori zela egokiena prestakuntza horren bitartez lortu nahi diren gaitasunak garatzeko. Ezarritako LOE titulu guztiek dute “Enpresa eta ekintzailletza” modulua.

Modulu berri horren bidez ikaskuntza eredu berri bat garatu nahi da sormenaren eta berrikuntzaren sustapenean oinarrituta. Helburua argia da: autoenplegua eta ekintzailletza sustatzea, Europako Kontseiluaren gomendioan (EUROPA 2020) ezarri diren helburuekin bat.

Nafarroako Gobernuak Equilicua programan 2012an eta 2013an egindako lanari dagokionez, hau esan behar da:

Goian azaldutako aldaketaz eta curriculum-egokitzapenez gain, Nafarroako Kutxa Fundazioarekiko lankidetzak hitzarmena sinatu zen, aurreko epigrafean aipatutako gaitasunen lorpena indartze aldera. Lankidetzak horren ondorioz, bai ikasleak bai irakasleak modu aktiboan lanean jartzen dituen prozedura metodologikoa sortu da.

Prozedura hori “Equilicua programa” deitutakoaren barruan dago, zeina 2012-2013 ikasturtean ezarri baitzen, hasiera batean Lanbide Heziketako 11 ziklotan, berrehun eta berrogeita hamar bat ikaslerentzat; 2013-14 ikasturterako, berriz, Lanbide Heziketako ikastetxe guztiei eskaini zaie, “Enpresa eta ekintzailletza” moduluen baitan.

Programak baliabide asko eskaintzen ditu ikasleek ekintzaile izaten ikas dezaten Nafarroako Lanbide Heziketako ikastetxeetan:

Heziketa Plataformari dagokionez:

Batetik, heziketarako laguntza eskaintzen du ikasgela birtualaren bidez. Bertan ikasle eta irakasleek hainbat baliabide erabil ditzakete, hala nola simulatzaileak edo jarduera berritzaileak, hori guztia adituen turoretzapean.

Gainera, ikasleen ingurune erreferentziako eragileekiko harremanetarako sarea eskaintzen du tresna horrek, esaterako gizarte-entitate, enpresaburu, aditu, ekintzaile edo arrakastadunekin harremanetan jarri ahal izateko.

Irakasleen prestakuntzari dagokionez:

Equilicua programa garatzeko prestakuntza egokia eman zaie irakasleei. Hasieran, 2012-2013 ikasturtean, LHko 10etik gora ziklotako Lanerako Prestakuntza eta Orientabidea espezialitateko irakasle talde tekniko bati eman zitzaion prestakuntza. Prestakuntza horretan, beste gai batzuen artean, metodologia arinen erabilera eta enpresak

simulatzeko programak jorratu dira, eta ikasgela birtualaren alderdi didaktikoetan sakondu da. Prestakuntza hori 2013-2014 ikasturtean indartu egin da eta "Enpresa eta ekintzailtza" modulua duten heziketa zikloetako LPO espezialitateko eta EEko irakasle guztiei eman zaie.

Ikasleen eta enpresen arteko topaketei dago-kienez:

Ikasle, ekintzaile eta enpresen arteko topakete hainbat baliabide eskaintzen dute gaitasunak lantzeko, adibidez, komunikazioa, sormena, berrikuntza, networking-a, autokritika, baliabideen kudeaketa edo negozio-ikuskerara garatzeko. Ikasturte osoan zehar egiten dira topaketak, baina beren adierazpen gorenara dute Berrikuntzaren, Sormenaren eta Ekintzailtzaaren Astea (ICE).

ICE Astea: Equilicua proiektuaren baitan eta ikasleen eta enpresen arteko topaketen esparruan beste ekintza bat sustatzen du Lanbide Heziketako Zerbitzuak, alegia, urtero antolatzea, Lanbide Heziketako goi mailako zikloetan, "ICE Astea" izenekoa (Berrikuntza, Sormena eta Ekintzailtza).

Aste horretan lantegiak egiten dira berrikuntzaren premisaren pean, ikastetxeko jarduketara esparrutik kanpo sormena eta ekintzailtasuna piztea helburu. Horrela ikasleei aukera ematen zaie esperientzia luzea duten kanpoko espezialistak ezagutzeko eta haiek zuzendutako jarduerara desberdin eta berrietan parte hartzeko. Egiten diren jardueren artean, canvas, co-working, plangintza eta komunikazio lantegiak nabarmen-tzen dira.

Lanbide Heziketako goi mailako zikloetako 1. kurtsoko ikasle guztiei zuzenduta dago.

Zein izan da programaren aurrekontua eta zenbat diru jarri du Nafarroako Gobernuak?

Departamentuak Equilicua programaren sorreran eta garapenean egin duen lanak, funtsean, LOGSE tituluaren diseinuak LOE tituluera moldatzeko curriculum-egokitzapenerako balio izan du, hori Hezkuntzako Departamentuaren ohiko eginkizuna baita.

Baina Departamentuak, gainera, Equilicua programako berriazko jarduerak garatzen lagundu du, Iruñerrikan kanpoko ikastetxeetan goi mailako heziketa zikloetako 1. kurtsuan dabilzan ikasleen joan-etorrien gastuak bere gain hartuz. Programak ekarritako metodologia berriak irakasleei erakusteko prestakuntzaren gastuak ere bere gain hartu ditu.

Ekarpenen xehakapena:

- ICE Astea (2011-2012 eta 2012-2013 edizioak):
  - o Ikasleentzako autobus zerbitzuaren ordainketa.
    - 2011-2012 ikasturteko jardunaldiak: 3.465 €
    - 2012-2013 ikasturteko jardunaldiak: 3.434,40 €
    - Garraioa, guztira: 6.899,40 €
- Metodologia arinak irakasleei erakusteko prestakuntza. Guztira: 1.101,20 €.

Nahiz eta kostuaren zenbatekoa ezin zehaztu dugun, adierazi behar dugu Fundazioaren ekarpenak barruan hartzen dituela, plataformaren sorrera eta diseinua ez ezik, plataformari funtzionaltasuna ematen dioten eduki eta jardueren hornidura, enpresak simulatzeko programen lizentzien ordainketa, Lanbide Heziketako modulu bati lotutako metodologia berri baten diseinua, hizlarien kontratazioa eta Pio XII.aren etorbideko Civicaneko instalazioen lagapena, bai jardunaldiak egin diren egunetan bai Lanbide Heziketako gure irakasleei prestakuntza emateko ekintzetan.

Horren guztiaren aldean Nafarroako Gobernuaren ekarpen ekonomikoa huskeria da, programaren barruan garatu diren ekintzen garrantzia eta Lanbide Heziketako ikasleei eskaintzen ari zaizkien onurak kontuan harturik.

Hezkuntza Departamentuak lanaldi erdiko bi irakasleren ekarpena egin du bi ikasturtetan (2012-2013 eta 2013-2014). Haien egitekoak izan dira materialak prestatzea, jarduerak balidatzea, eta programa honetan Lanbide Heziketako ikasleen ikaskuntzarako eta hasierako helburuak betetzeko proposaturiko jarduketara guztiak egokiak direla egiaztatzea.

ICE jardunaldietan zein izan da Nafarroako Gobernuak egindako lana 2012. eta 2013. urteetan?

Gure lana, bi kasuetan, Nafarroako Kutxa Fundazioko arduradunekin batera jardunaldien antolaketan laguntzea izan da. Horretan aritu dira Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikari bat eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasle boluntarioak. Hona ekintzak:

- Jardunaldien antolaketan laguntzea (Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria).
- Jardunaldien berri zabaltzea LHko ikastetxeetan (Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria).
- Ikasleen garraioa kudeatzea (Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria).

• Jardunaldietan ikasle eta irakasleei laguntzea (Lanbide Heziketako Zerbitzuko teknikaria eta irakasleak).

Zein izan da jardunaldi horien aurrekontua?

Ez dakigu zein izan den jardunaldien aurrekontua guztira. Nolanahi ere, gorago adierazi denez, Nafarroako Gobernuak ez du diru asko jarri jardunaldietarako, Iruñetik kanpoko ikasleentzako garraio zerbitzuak ordaindu besterik ez du egin.

Esan bezala, ikasleak garraiatzeko autobus zerbitzuarengatik guztira 6.899,40 € ordaindu dira.

Azkenik, aipatu behar da programak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei ere eskaintzen dizkiela ekintzailatza jarduerak, borondatezkoak.

Hezkuntza Departamentuak ezagutzen du jarduera hori, baina ez du hartan zuzenean parte hartzen. Nafarroako Kutxa Fundazioak ordaintzen du programa horren gastu osoa. Zentro bakoitzak bere kabuz parte hartzen du plataforma birtualeko jardueretan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## Galdera, oinarrizko osasun-laguntzan gaixoentzako zaintza-eskaintzak duen jarraitutasunari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egindako galderaren erantzuna, oinarrizko osasun-laguntzan gaixoentzako zaintza-eskaintzak duen jarraitutasunari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du oinarrizko osasun-laguntzan gaixoentzako zaintza-eskaintzak duen jarraitutasunari buruz (PES-00041). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

#### 1. Departamentuaren ustez, zer da oinarrizko osasun-laguntzako gaixoentzako zaintza-eskaintzaren jarraitutasuna?

Oinarrizko osasun-laguntzako gaixoentzako zaintza-eskaintzaren jarraitutasuna da laguntza integrala (biopsikosoziala) ematea, denboran

jarraitua, gaixoen nahiz zaintzaileen beharrak ardatz dituen.

Zaintzaren jarraitutasunean esku hartzen duten elementuak:

1. Gaixoak eta zaintzaileak. Oso garrantzitsuak dira:

a. Gaixoaren autonomia edo mendekotasuna.

b. Gaixoak mendekotasuna badu, zaintzailea izatea edo zaintzailerik ez izatea, eta pertsona horren zainketen eraginkortasuna.

2. Gaixoa artatzeko prozesuan parte hartzen duten arlo guztietako profesionalen arteko informazio trukea, pertsona horren egoera klinikoa, osasun- eta gizarte-zainketen beharra eta tratamendu plana direla eta.

3. Modu egokian erantzuteko antolatutako laguntza-ingurunea. Gurean osagai hauek ditu, gaixoa bere etxean bizi bada:

a. Oinarrizko osasun-laguntzako taldea.

b. Esparru espezializatuko zerbitzuetako profesionalak.

c. Ospitaleko eta ospitalez kanpoko larrialdieta-laguntza.

d. Beste batzuk:

i. Etxeko ospitalizazioa.

- ii. Zainketa aringarriak behar dituzten pertsonentzat, San Juan de Dios Ospitaleko Sostengu Unitatea.

Bereziki zaurgarriak diren gaixo taldeak:

- Maiz desorekatzen diren gaixo kronikoak.
- Adineko gaixo ahulak.
- Erregimen terapeutikoa ongi erabiltzeko gai ez diren gaixoak edo ahaideak, ezjakintasuna, zaintzailearen nekea, mendekotasun handia edota laguntzaren behar handia duten gaixoak.
- Zaintzaileen eta gaixoen jarrera ezegokia.
- Haurdunaldia, erditzea eta erditze-ondoa.
- Egonaldi laburreko kirurgiako ebakuntza egin zaien gaixoak.

Zainketen jarraitutasuna garrantzitsuagoa den egoerak:

1. Gaixo kroniko desorekatua

- a. Tratamendu ambulatorioa izan dezakeen desorekatze progresiboa.
- b. Tratamendu ambulatoriorik ezin izan dezakeen desorekatze progresiboa.
- c. Desorekatze akutua.

2. Ospitaleratu beharra izan duen gaixo kroniko desorekatua:

- a. Ospitaleko egonaldiaren hasieratik alta planifikatzearen garrantzia.
- b. Alta hartutakoan baliabiderik egokiena kudeatzea, gaixoaren eta zaintzailearen egoeraren arabera:
  - i. Etxeko artapena. Oinarrizko osasun-laguntzako taldeko medikuaren kontsulta lehen 24 orduetan.
  - ii. Tarteko zainketetarako oheak...

3. Hil hurren dauden gaixoak.

4. Alta eman zaien jaioberriak. Oinarrizko osasun-laguntzako erizaintza pediatrikoko bisita etxera.

5. Kirurgia handi ambulatorioa edo ospitaleko ohiko kirurgia egin zaien gaixoen alta.

**2. Une honetan, nola jorratzen da jarraitutasun hori?**

Une honetan, oinarrizko osasun-laguntzaren eremuan zainketen eskaintzaren jarraitutasuna modu desberdinetan gauzatzen da.

Zehazki, oinarrizko osasun-laguntzako taldeak 08:00etatik 15:20ra arte eskaintzen du laguntza. Ondoren, 15:20tik 08:00ak arte, Iruña, Tafalla,

Lizarra eta Tuterako hirialdeetan, Ospitalez Kanpoko Larrialdietako Zerbitzuko eta larrialdi zerbitzu arruntetako profesionalak ematen dute laguntza.

Landaguneetan, berriz, Landa Eremuko Larrialdi Zerbitzuko profesionalak edo oinarrizko osasun-laguntzako profesionalak berek, guardia orduetan.

Osasun arloko langile guztiek eskura dute gaixoaren historia klinikoa. Gainera, Ospitalez Kanpoko Larrialdietako Zerbitzuarekin ere badago protokolo bat oinarrizko osasun-laguntzako taldeko profesionalari aukera ematen diona Ospitalez Kanpoko Larrialdietako Zerbitzuaren jarraipen jarduketak programatzeko, gaixo jakinentzat.

Esan daiteke, hala eta guztiz ere, bereziki zaurgarriak diren gaixoei egunaren 24 orduetan eta asteko 7 egunetan jarraipen proaktiboa egiteko beharrezkoak diren jarduketak planifikazioa, batez ere goian deskribatu diren egoeretan, ez dagoela sistematizatuta. Oinarrizko laguntza-eremu batzuetan jarraipen hori hobeki koordinatzen da besteetan baino, eta, funtsean, OOLTKo eta Nafarroako Larrialdi Zerbitzuko/Landa Eremuko Larrialdi Zerbitzuko profesionalen arteko elkar hartzearen mende dago.

Gaixoei zaintza eskaintzen jarraitu nahi bada arreta-kupoaren arabera, 20:00ak arte egonen al dira zentro guztietan kupoak?

Arratsaldeko kupoak egotea hiriguneetan (non hedapen hori baizik ez dagoen) ez da laguntzaren jarraitutasunaren bermea. Izan ere, gaixoen zerrenden sistema baten arabera esleitutako biztanleei bakarrik ematen zaie laguntza, kupo horiek ez baitute laguntza jarraituko lanik egiten oinarrizko laguntza-eremuko gaixo guztientzako ordutegian. Tarte horretan Larrialdi Zerbitzuak ematen die arreta egoera horiei.

**Arratsaldeko kupoen eskaintza egiten jarraitu nahi da, biztanleei ordutegi hobea eskaintze aldera.**

Eremu horietan laguntzaren jarraitutasuna nola hobetu aztertzen ari da eta proposamen bat egiten da, gaixo kronikoentzako laguntzaren pilotaje-an garatu beharrekoa. Proposamen hori diseinatzen hasi da, ikusteko zein den eredurik onena, biztanleei zainketen kalitatea eta jarraitutasuna bermatuko dizkiena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, Osasunbideko plantillak azken lau urteetan izan duen bilakaerari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Osasunbideko plantillak azken lau urteetan izan duen bilakaerari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 14ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Osasunbideko plantillaren bilakaerari eta Osasunbideko langileen guardia orduei buruz (PES-00040). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak:

1. Zein da Osasunbidearen plantilla osoaren azken lau urteotako bilakaera, 2010etik 2013ra?

Exceleko taula erantsi da

2. Zein izan da, epe horretan berean, Osasunbideko langileek egindako orduen bilakaera?

Exceleko taula erantsi da

3. Osasun Departamentuak zer aurreikuspen egin du, 2008ko martxoaren 13ko akordioaren

berrikuspenean oinarrituta, landaguneetako oinarritzko osasun-laguntza jarraituari eta Osasunbideko langileen lan-baldintzei dagokienez, arestiko parametroak direla-eta?

2008ko martxoaren 13ko akordioaren bidez onetsi zen Osasun Administrazioak zentral sindikalekin sinatutako ituna, landaguneetako oinarritzko osasun-laguntza jarraituari eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen beste lan-baldintza batzuei buruzkoa. Akordio horren 2014ko urtarrilaren 31ko berrikuspenean ezarritako oinarri harturik, aurreikuspen hau egin da:

Landaguneetako larrialdietako zerbitzuen plantillari 12 lanpostu egonkor gehituko zaizkiola aurreikusten da: 6 mediku eta 8 erizain. Horiek lanaldi arruntean beteko lukete guardien murrizketa zenbatetsia, aurreikusten den 9.211 orduko ereduarekin.

Urteko guardia orduen kopurua, proposatutako ereduarekin, 95.014tik 85.803ra jaitsiko litzateke. Horietatik 5.314 ordu guardia lokalizatuko orduak izanen lirateke, eta gainerakoak, lanpostuan egon beharreko guardia orduak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUA, 2010-2013													
	PLANTILAREN BILAKAERA						EGINDAKO ORDUAK			EGINDAKO GUARDIA ORDUAK			
	finkoak	egiturazkoa	hutsik	ordezpenak	egoilarrak	guztira	ordua	Lanpostuan	Lokalizatuak	Guztira			
2010	urtarrila	691	1.660	1.738	339	10.101	1.340.131	70.922	45.271	116.193			
	otsaila	708	1.678	1.639	339	10.019	1.329.234	79.296	49.993	129.289			
	martxoa	697	1.678	1.604	339	9.959	1.321.214	78.457	49.999	128.456			
	apirila	677	1.689	1.613	339	9.944	1.319.241	79.349	50.867	130.216			
	maiatz	667	1.700	1.579	358	9.927	1.317.041	74.822	47.796	122.618			
	ekaina	663	1.705	1.817	358	10.163	1.348.328	84.728	53.446	138.173			
	uztaila	594	1.661	2.398	361	10.670	1.415.526	82.700	49.576	132.276			
	abuztua	587	1.652	2.617	363	10.873	1.442.294	77.010	47.466	124.477			
	iraila	621	1.713	2.065	361	10.373	1.376.244	82.159	51.177	133.336			
	urria	662	1.473	1.751	359	10.113	1.341.650	81.112	48.891	130.003			
	azaroa	676	1.343	1.783	358	10.179	1.350.405	84.299	49.694	133.994			
	abendua	622	1.339	2.192	357	10.534	1.397.482	81.570	48.651	130.221			
	2011	urtarrila	625	1.321	1.753	357	10.099	1.339.817	73.251	42.543	115.794		
	otsaila	653	1.284	1.573	357	9.951	1.320.191	80.551	46.861	127.412			
	martxoa	669	1.252	1.645	357	10.036	1.331.464	79.807	47.956	127.763			
	apirila	653	1.093	1.707	357	10.059	1.334.588	81.032	47.564	128.596			
	maiatz	678	1.073	1.703	396	10.103	1.340.409	77.018	45.409	122.427			
ekaina	666	1.079	1.936	380	10.298	1.366.175	87.938	51.183	139.121				
uztaila	613	1.069	2.473	377	10.755	1.426.895	84.931	47.668	132.598				
abuztua	600	1.070	2.684	374	10.932	1.450.415	80.396	46.015	126.412				
iraila	601	1.029	2.042	371	10.275	1.363.211	84.831	49.417	134.247				
urria	615	1.005	1.713	369	9.974	1.323.258	82.479	46.873	129.352				
azaroa	613	1.005	1.680	369	9.955	1.318.137	85.623	49.888	135.510				
abendua	608	1.009	1.959	368	10.195	1.352.564	82.805	48.089	130.894				
2012	urtarrila	591	1.012	1.584	368	9.805	1.300.868	77.401	44.559	121.960			
otsaila	613	857	1.451	367	9.676	1.283.768	84.230	48.084	132.314				
martxoa	608	805	1.441	366	9.633	1.277.965	82.534	48.280	130.814				
apirila	577	807	1.510	366	9.668	1.282.604	82.377	47.916	130.293				
maiatz	580	810	1.476	405	9.679	1.284.115	77.558	46.374	123.932				
ekaina	582	812	1.705	393	9.895	1.312.723	86.277	49.977	136.254				
uztaila	562	814	2.243	393	10.377	1.376.713	85.360	48.114	133.474				
abuztua	557	821	2.437	392	10.587	1.404.560	81.131	46.605	127.737				
iraila	575	830	1.849	390	10.014	1.328.500	83.028	47.418	130.446				
urria	584	822	1.568	389	9.500	1.260.304	81.145	46.568	127.712				
azaroa	568	847	1.708	386	9.646	1.279.710	86.705	50.142	136.847				
abendua	563	857	1.876	384	9.802	1.300.436	85.225	47.902	133.127				
2013	urtarrila	557	857	1.535	384	9.446	1.253.237	75.307	42.599	117.906			
otsaila	556	739	1.397	384	9.214	1.222.484	85.031	48.470	133.501				
martxoa	551	748	1.432	383	9.234	1.225.039	81.089	44.865	125.953				
apirila	546	764	1.494	383	9.290	1.232.548	81.999	46.416	128.415				
maiatz	6075	563	781	385	9.320	1.236.508	78.663	45.506	124.169				
ekaina	6047	568	799	396	9.535	1.265.068	87.480	48.277	135.756				
uztaila	6012	539	812	396	10.088	1.338.352	85.589	46.399	131.981				
abuztua	5945	530	806	395	10.207	1.354.099	80.867	44.744	125.611				
iraila	5936	552	815	392	9.662	1.281.793	82.432	45.520	127.952				
urria	5958	578	828	387	9.416	1.249.185	81.309	44.969	126.277				
azaroa	5945	566	855	387	9.549	1.266.884	84.011	48.083	132.094				
abendua	5926	553	864	385	9.848	1.306.496	81.723	50.424	132.147				





## **Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzutik 2012an eta 2013an sustaturiko prestakuntza-ikastaroei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Enplegu Zerbitzutik 2012an eta 2013an sustaturiko prestakuntza-ikastaroei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 14ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du Nafarroako Enplegu Zerbitzutik 2012an eta 2013an sustaturiko prestakuntza-ikastaroei buruz (PES-00035). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Eskatutako datuak dituzten fitxategiak erantsi dira. Datuok lan-planeko neurriei dagokien programazioaren arabera egituratuta daude, modu honetan:

A) Lehentasunez langabeentzat direnak:

- Hezkuntzarekiko akordioa. (1. dokumentua. "Educación 2012-2013" fitxategia).

- Langabeentzako deialdia. Onetsitako zentro eta entitateen arteko norgehiagoka. (2., 3., 4. eta 5. dokumentuak, "Desempleados 2012 y 2013").

- Programazio berekia. Iturrondo eta Cenifer zentroak. (6. dokumentua. "Centros propios 2012 a 2013" fitxategia).

B) Lehentasunez landunentzat direnak:

- Norgehiagokako deialdia, Estatuko araudiari lotua. TAS. (7. dokumentua. Excel fitxategia da, urtez urteko eta onuradunen arabera orriekin)

C) ETE-entzat direnak:

- Norgehiagokako deialdia. (8., 9., 10. eta 11. dokumentuak). "Pymes" fitxategiak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 5ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena betetzeari begira aurreikusten dituen jarduketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrena betetzeari begira aurreikusten dituen jarduketei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 14ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrenako jarduketei buruz (PES-00039). Hau erantzun du Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak 2013tik ari da lanean Julio Caro Barojaren figura oroitzeko ekitaldien antolaketan, eta honako ekintza hauek biltzen dituen egitaraua osatu du:

– “Nafarroa bizi-bizia. Julio Caro Barojari omenaldia” Julio Caro Barojari buruzko erakusketa ibiltaria, nafarren zentroetara eta kultur etxeetara eramango dena. Panel handiek osatzen dute erakusketa; egile ospetsuak bere ikerketetan jorratu zituen Nafarroako gaien inguruko argazkiak dira, Julio Caro Barojak berak idatzitako testu laburrekin. Badago Julioren figurari buruzko panel berezi bat, eta Berako Itzea etxea ageri da beste panel batean. Ekintza honek 26.000 euroko aurrekontua du, eta zati batean baliabide berekiekin antolatu da.

– Nafarroako Gobernuak argitaratutako Julio Caro Barojaren obren berreskuratze editoriala: Argitalpen Zerbitzuak berreskuratze editoriala proposatzen du, hain zuzen ere egilearen irakurketa-gida egitea, Liburutegien Sarearekin elkarlanean. El presupuesto asciende a 12.000 euros, repartido en las siguientes publicaciones: Aurrekontua 12.000 eurokoa da, eta argitalpen hauen artean dago banatua:

- Príncipe de Viana aldizkariaren ale monografikoa (206 zenbakia, 1995ean argitaratua).

- La hora Navarra del siglo XVIII: personas, familias, negocios e ideas.

- Navarra, cuatro estaciones.

- Navarra, tradiciones y costumbres.

– “Nafarroa Julio Caro Barojaren begiradan” Museoen Zerbitzuak ekoiztutako aldi baterako erakusketa. Erakusketa honetan aparteko protagonismoa hartzen du Julio Caro Baroja Museo Etnologikoa. Erakusketa 2014ko urrian hasiko da, eta 2015eko martxora arte iraungo du. Helburua da, Navarra, las cuatro estaciones dokumentalaren edukia abiapuntu hartuta, Julio Caro Barojak 1970eko hamarkadaren hasieran jaso zuen Nafarroako ondare etnologikoa egungo ondarearekin konparatzea, Julio Caro Barojaren lanaren balioa eta iraunkortasuna egiaztatu eta ziurtatzeko. Gutxi gorabehera 40.000 euroko aurrekontua du.

– Interesgunea, Nafarroako Liburutegi Nagusian. Leku horretan Julio Caro Barojarekin zerikusia duten liburuak edo ikus-entzunezkoak aurkeztuko dira, eta mahai batean dokumentuak jarriko dira jendearen eskura, Julio Caro Barojaren obra hedatzeko eta irakur dadin sustatzeko.

– Liburu berri bat argitaratuko da. Julio Caro Barojaren testu aukeratuak bilduko ditu, Nafarroako etnografia, arkitektura, pentsamendu-joerak, historia, hizkuntza eta abarreko gaiak jorratzen dituztenak.

– Irakurketa-gida, Liburutegi Nagusian. Baliabide elektronikoa da, Liburutegiaren buletinaren bitartez zabaltzen da eta webgunean kontsulta daiteke. Baliabide berekiekin antolatutako ekintza da.

– Erakusketa etnologikoa Beran: Nafarroako Gobernuaren eta Berako Udalaren arteko lankidetzaren delako medio, erakusketa etnologikoa antolatuko da, Berako Funtsetik aukeratutako osagaiekin, Berako Kultur Etxean, 2014. urteko bigarren seihi-lekoan.

– Kontzertua Beran: Nafarroako Gobernuaren eta Berako Udalaren arteko lankidetzaren ildo beretik, herri horretan Julio Caro Barojaren musika-kazalatasunaren eta disko bilduma bikainaren aipamena egingen duen kontzertua antolatzea pro-

posatu da. Ekintza hau oraindik zehaztu gabe dago eta ez dugu kostuaren zenbatespenik.

Gobernuak ez du berariazko kontusailik sortu ekintza horietarako, aurrekontu luzatua kudeatu beharra duelako.

Hala ere, Nafarroako Gobernuak, Julio Caro Barojaren figuraz duen interesak bultzaturik, ekitaldi duinak eta bihotz-bihotzez sentituak sustatu ditu Administrazioaren ohiko egitarauen barnean, betiere soiltasun handiz eginen direnak, garai hauei dagokien bezala. Zenbatekoak azalduta daude aurreikusitako ekintzetako bakoitzean.

Gobernu honek egin dituen harremanei dagokienez, adierazi behar da lehen harremana Caro-

Baroja familiarekin izan zela, eta, beti egin duten bezala, laguntzeko gogotsu agertu zirela.

Gainera, harreman eraginkorrak egin dira Berako Udalarekin. Harekin batera lan egin da guztien helburua lortzeko, hots, Julio Caro Barojaren figura, obra eta ingurunea goratu eta nabarmentzeko. Bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmen batean formalizatuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoan

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

